



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

IKAZTEGIETAKO 01 POLIGONOKO 67 LURSAILEAN KOKATZEN DIREN 14 BARATZA EKOLOGIKO PUBLIKOEN BERRAKURATZE KONTRATUAK ESLEITZEKO ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA

LEHENENGOA.- Kontratuaren xedea

Kontratu pribatu honen xedea izango da Ikaztegietakoko 01 poligonoko 67 lursailean kokatzen diren 14 baratza ekologiko publikoen berrakuratze kontratu pribatuen esleipena.

BIGARRENA.- Kontratuen prezioa.

Kontratu hauen prezioa, urteko 20 euroko izango da. BEZik gabe.

HIRUGARRENA.- Kontratuaren epea.

Berrakuratze kontratuen epea izango da errenta kontratuak irauten duen bitartekoa. **2021eko maiatzaren 21 arte.**

Hala ere kontratuen bi alderdiak elkar komunikatu beharko dute era frogarri batean kontratua bukatutzat ematen dutela amaierari eman baino 3 hilabete



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

lehenago.

Esleipendunek, kontratua amaitu eta hilabeteko epean, baratza garbi utzi beharko dute, hurrengo esleipendunak lantzeko beharrezko egokitasunez.

Kontratuen epemuga iritsi baino 6 hilabete lehenago alokatzaileak maizterrei jakinarazi beharko die era frogarrian lur saila berreskuratu nahi dituela.

LAUGARRENA.- Eskuduntza

14 kontratu pribatuak esleitzeko eskuduntza udal bilkurarena izango da.

BOSGARRENA.- Kontratuaren izaera eta erregimen juridikoa.

2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuak arautzen duen Sektore Publikoko Kontratazio Legearen Testu Bateratuaren 4.1.p) artikulua araberan esleitu diren 14 udal baratza ekologikoen kontratuak pribatuak izango dira. Beraz kontratu hauek eraenduko dira:

- a) Kontratuen antolaketa eta esleipena azaroaren 3ko 33/2003 Estatuko ondasunen legearen eta bere abuztuaren 28ko 1373/2009 erregelamendu orokorraren arabera.
- b) Kontratuen ondorio eta iraungipenak zuzenbide zibilaren arabera. Azaroaren 26ko 49/2003 landa alokairu legearen, zuzenbide zibileko gainontzeko legeen eta kode zibilaren arabera.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

Kontratuen betetzeetik eratorritako auzi edo eztabaidak ezagutzeko jurisdikzioa, zibila izango da eta administrazioarekiko auzi jurisdikzioa aldiz kontratuen antolaketa eta esleipenetik eratorritako egintzak ezagutzeko.

SEIGARRENA.- Onuradun izateko betebeharrak.

A) Eskaera aurkezterakoan Ikaztegietako herrian erroldatua egotea.

B) Adin nagusia.

Adingabeen eskabideek guraso edo tutoreen abala izan beharko dute, eta adinez gorakoak izango du erantzukizuna, kontratu honen arabera

C) Ikaztegietako Udalarekin egunean egotea zerga edo bestelako betebeharrekin.

D) Familia bereko beste kide batek ez edukitzea beste baratza publiko ekologiko bat.

E) Ez edukitzea jabetzan, usufuktuan edo alokairuan nekazal ustiapenerako egokia den lursail bat eskaera egiten duen interesatuak ezta bere familiako kide batek. Betebehar hori betetzen den egiaztatzeko Ikaztegietako Udalak Plan Orokorrean jasotako lurren sailkapena kontutan izango du.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

F) Eskaera kopuruak ez badu gainditzen egokituta dauden partzelarena, edo denboraren zehar betetzekoak sortuko balira, eskatzaileen egoeraren arabera d) eta e) atalak modulatu dira, dagokiona erabakiz Alkatetzaren ebazpen bidez

ZAZPIGARRENA.- Esleipen prozedura

Kontratuen esleipena zozketa publiko baten bitartez egingo da, azaroaren 3ko 33/2003 Estatuko ondasunen legearen 124 artikulua.

Zozketatuko diren baratzen zenbakia kontutan izanik, konkurrentzia erregimenean egingo da, nahiz eta interes jakin batzuk dituen eta erabilera berezia emango dien taldeak konkurrentziaz kanpo geratuko diren. Udalak zehaztuko dituen zeintzuk izango diren talde eta partzela horiek.

Baratza publiko ekologiko bat edukitzeko asmoa duen interesatuak eskaera orri bat aurkeztu beharko du Ikaztegietako Udaletxean 15 egun naturalen barruan. Bete beharko duen eskaera orria ofiziala izan beharko du. (I. eranskina).

Eskaera orriaz aparte ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu:

a) NANren fotokopia edo ordezkatu duen agiria.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

b) Aurreko artikuluan jasotako betebeharrak betetzen dituen aitoren eredu ofiziala. (II eranskina)

Ikaztegieta Udalak ofizioz egiaztatuko du errolda, arau hauste falta eta egunean egotea zerga edo bestelako betebeharrekin.

Baratza ekologikoen esleipena Ikaztegieta udal bilkurak egingo du.

Baratza ekologikoen esleipena zozketa publikoaz egingo da, zozketaren data une egokian iragarriko delarik.

Ikaztegieta udal bilkurak berrakuratze kontratuak esleituko ditu eskatzaileen agiriak jaso eta 30 lan eguneko epean. Esleipenak jakinarazi dituelarik.

ZORTZIGARRENA.- Esleipenak eta ordezkoen zerrenda.

Esleipen erabakiak zehaztu beharko du baratzen helburua, definizioa kokapena, baratza zainen eskubide eta betebeharrak eta berrakura kontratuaren epemuga.

Zozketan baratza bat lortzen ez duten eskatzaileak ordezkoen zerrenda batetan sartuko dira. Zerrenda hori erabiliko da hutsik geratzen diren baratzak betetzeko. Zozketako hurrengo hautagaiari deituko zaio berrakura kontratuaren epemuga eta lurrean landatutakoa emankorra den bitartean.

Zozketara aurkeztuko balira zozketatzen diren baratzak baino interesatu



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

gutxiago, esleitzen ez diren baratzak esleituko dira eskaerak aurkezten diren heinean eta beti ere batza publiko ekologiko bat edukitzeko onuradun bati eskatzen zaizkion betebeharrak betetzen baditu (zortzigarren klausula).

BEDERATZIGARRENA.- Elkarte bat osatzea.

Esleipendunak elkarre bat osatu beharko dute batzak kudeatzeko eta pertsona bat izendatu beharko dute Ikaztegieta arduradunarekin harremanetan egoteko. Aipaturiko pertsona hau izango da baratza zainen kezkak, arazoa, e.a jasoko dituenak.

Elkarrearen helburuetako bat izango da Herri baratza Ekologikoaren funtzionamendua zaindu eta mantenu minimo bat eramatea. Baratzen artean sortzen diren pasillo edo guneen eta gune ez produktiboen mantenuan (txabolaren, konposta gunearen eta ur askarena).

Ikaztegieta Udalak aipaturiko elkarreari uraren kontsumoaren gastu igorriko dio.

HAMARGARRENA.- Baratza ekologikoen esleipendunen betebeharrak

Baratza ekologikoen esleipendunek baratza ekologikoen araudia eta



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, (www.eneek.com).

1. Aisialdirako baratz ekologikoen erabilerarako pertsona adjudikaziodunak behartuta egongo dira baratzak eurek erabiltzera eta ez lagatzera euren erabilera beste pertsona batzuei; ezingo dute onartu beste inoren erabilerarik, eta honako baldintzak bete beharko dituzte, horiei buruz egiten duten erabilera kontuan hartuta:

a) Arau orokor gisa, baratzen erabilerari buruzko baldintza administratibo partikular honetan jasotako alderdi guztiak errespetatu beharko dituzte.

b) Baratzeak erabiltzea inguruan ohikoak edo berezkoak diren baratzkien espezieen laborantza eta landaketarako: Uhaza, tomatea, kipula, porrua, kalabaza txikia, indaba baita inguruan ohikoak diren apainketarako landare eta loreak, aromatikoak eta sendabelarrak, gainerakoak baztertuz.

c) Erabiltzeko lagatzen diren instalazioak eskuratutako baldintza berdinetan mantentzea, behar bezala zainduz. Lursailak garbi egon beharko du uneoro, bertan dauden landaketei kalterik eragin gabe.

d) Erabilera kontzeptuan jasotzen diren ondasunak ezin hobeto mantendu eta zaintzea. Udalari jakinarazi beharko diote baratz edo instalazioei eragiten dien edozein gertakari, beste erabiltzaile batzuek zein kanpoko pertsonak eraginak izanda ere.

e) Udalari baratzaren jabetza itzultzea, kontratuaren epea amaitzen denean, adjudikaziodun pertsona berriek erabiltzeko egokitasun osoz; edo, bestela, kontratuari uko egin edo bertan behera utziz gero, erabakia gauzatzen den unean.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

- f) Kanpoko pertsoneri baratzetara sartzea galaraztea, kontratuaren titularraren onespena izan ezean, eta erabiltzailea ez den edozein pertsonari baratza erabiltzen saihestea.
- g) Hasieran lagatzen den lursailaren egitura eta azalera bera mantentzea, Udalak ezarritako mugak aldatzeko aukerarik izan gabe, ezta Udalean eskumena duen organoak aldez aurretik baimendutako obrarik edo itxiturarik ere. Era berean, titularrak ezingo du instalatu lurraren laborantzarako zehazki ez diren bestelako elementuak: Barbakoak, etxolak, biltegiak, etab.
- h) Baratzeko beste erabiltzaileei eragozpenik eragitea, kalterik edo minik eragin lezakeen tramankulu, mekanismo edo bestelako sistemen erabilera saihestuz.
- i) Laborantzan, garbiketan edo baratzeko gainerako zereginetan erabiltzeko substantzien erabilera saihestea, baldin eta kalterik eragin badiezaiokete zoruari.
- j) Animalien presentzia saihestea baratzetan.
- k) Ez bertan behera uztea baratzen erabilera edo laborantza, batik bat fruituak bildu beharko dira baldin eta kiratsa sorrarazten baldin badute, lursaila zikintzen badute, edo paisaiari eta inguruari kalte egiten badiote, izan landarean zein lurrean daudelako.
- l) Baratzeen barruan ez erabiltzea trakzio mekanikoko ibilgailurik.
- m) Baratzeetan materialak edo tresnak biltzea saihestea, ez baldin badira ezinbestekoak lurraren laborantzarako.
- n) Baratzean egin beharreko lanetarako beharrezkoak diren gaitasunak eta



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

baldintza fisikoak mantentzea. Alde horretatik, erabiltzaileak berehala jakinarazi beharko dio Udalari gaixotasun edo patologia larriren bat hartzen baldin badu, hilabete bat baino gehiagoko ezgaitasuna eragingo baldin badio.

o) Ezingo du musika-aparailurik erabili baratzeko egonaldia alaitzeko laborantzan dabilen bitartean, baldin eta bolumenarengatik inguruko baratzetako beste erabiltzaileak edo auzokideren bati eragozpenik eragiten badio.

2. Elementu komunak, bai azpiegiturak, bai lanabesak, erabilera eta garbitasun baldintza egokietan errespetatu eta mantendu beharko dira. Erabiltzaileak erabiltzaileen taldearen gehiengoak ezartzen dituen elementu komunen mantenurako erabakiak bete beharko ditu ezinbestean. Era berean, erabiltzaileen taldeak ordezkari bat edo batzuk aukeratu ahal izango ditu elementu komunen gaineko erabaki lotesleak hartzeko edo Udalarekiko harremanetan bozeramaileak izateko.

3. Kontratuaren titularrak aurreko atalean adierazitako baldintzetako bat beteko ez balu, Udalak kontratua hautsi ahal izango dio.

4. Era berean, erabiltzaileek eurek egunero zainduko dute baratzaren kontserbazioa, konponketa, instalazioen mantenua eta erabileraren egokitasuna, eta haien erantzukizuna izango da azpiegituren kontserbazioa, konponketa, instalazioen mantenua eta erabileraren egokitasuna, baldin eta ez badira ondo erabiltzen.

5. Adjudikaziodunek derrigorrez parte hartu beharko dute Udalak bere agenteak eta laguntzaileak (Ekogunea) antolatzen dituen nekazaritza eta baratzezaintza ekologikoko praktika onen ikastaro teoriko eta praktikoetan.

6. Elkarrekin mantenurako egutegi bat ezarri beharko du, beharrezkoak diren



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

mantenu lanetan laguntzeko. Baratzen artean sortzen diren pasillo edo guneen eta gunee ez produktiboen mantenuan (txabolaren, konposta gunearen eta ur askarena). Egutegi udal teknikariak, bere agenteak eta laguntzaileak (Ekoguneko Koordinatzailea) adostu beharko dute.

HAMAIKAGARRENA.- Lurraren aprobetxamendua

Lagapenaren titularra behartuta dago lagatuko baratza lantzera. Nekazari on batek bezala jardun beharko du eta lanabes egokiak erabili beharko ditu, eta aurreko artikuluan adierazitakoari kalterik eragin gabe, baratzen aprobetxamenduak arau hauek bete beharko ditu:

- a) Ez da onartuko lurrak, zorua edo azpiko lurra narriatzeko arriskua duten landareak edo barazkiak landatzea.
- b) Era berean, erabiltzaileak ezingo du espezie exotiko edo inbaditzaileak landatu, ezta legez onartuta ez dagoen bestelako landararik ere.
- c) Bestalde, ezin dira sasoikoak ez diren espezieak landatu; gehienez zortzi hilabeteko epean uzta jasotzeko landareek izan beharko dute, eta ezingo dira landatu zuhaitzik, ezta fruta-arbolak ere.
- d) Ezingo dira instalatu negutegiak, kutxak, iltzatutako elementuak edo etxolak.
- e) Debekatuta dago baratzeko laborantzaren zatiak edo belardiak erretzea, baita aisialdirako baratz ekologikoen eremuaren barnean inolako surik piztea ere.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

f) Ezin da likidorik isuri besteen baratzetan, ezta sastraken edo garbiketaren hondakinak bertan edo baratzean utzi ere.

g) Ezin da elementurik instalatu baldin eta paisaia narriatzen badute edo dauden instalazioak aldatzen badituzte, izan bidoiak, biltegi osagarriak, txapak, banatzaileak edo antzekoak.

h) ezin da eraikuntzarik egin lursailetan, ezta itzalperik edo zintzilikatzekeo tresnarik edo inguruaren itxura alda dezakeen bestelako elementurik erantsi ere.

i) Ezingo dira erabili zepoak, tranpak, sokak, edo perdigoiz zein balin eskopetarik, gomazko jaurtigailurik edo bestelako tresna edo tramankulurik, mekaniko zein natural, lurreko sarbidea galarazteko edozein hegazti, animalia edo pertsonari, txoriei sarbidea eragozten dieten sare babesleak salbu.

j) Ezin da lursaila itxi inolako hesiekin (harri, egur, adreilu, bloke zein bestelako eraikuntzarako elementu mugatzaileekin) baratza, bere ertzak edo mugak itxi, markatu edo mugatzeko, Udalak horretarako aukeratu dituenetatik aparte.

2. Kontratuaren titularrak aurreko atalean adierazitako baldintzetako bat beteko ez balu, Udalak kontratua hautsi ahal izango dio.

HAMABIGARRENA.- Nekazaritza ekologikoa



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

Baratzeen erabileraren onuradunek ez dituzte erabiliko lurrari kalte larririk eragin ahal dion produktu fitosanitariorik edo bestelako ongarririk, ezta azaleko uririk; atmosferan partikula ez desiragarriak aska ditzaketen akuiferoak ere ez dira onartuko inguruko edo tokiko pertsona, fauna zein florari kalteak eragiteko arriskua badute, ingurumeneko praktika jasagarrietan jasotzen denari jarraiki. Era berean, ezingo dira erabili zorua kutsa dezaketen bestelako garbiketa produktuak.

Bestalde, debekatuta dago lurrian inolako isuri kutsatzailerik egitea, baldin eta zoruari kalte larririk eragin ahal badiote. Posible den neurrian, erremedio naturalak erabiliko dira izurri eta gaixotasunen aurka eta lurra aldikotasunez ongarriztatuko da, aldeztu aurretik deskonposatutako materia organikoa erabiliz (konposta, simaurra, hondakin organikoak, etab.), ongari artifizialak erabili ordez.

Jarduera hau laborantza metodo tradizionalekin lotu nahian, baina ingurumenaz modu zientifikoan arduratzen diren ezagutza eta teknika berriei uko egin gabe, landu beharreko nekazaritza ekologikoa izango da. Hortaz, ez da erabiliko produktu kimikorik (produktu «kimikoak», produktu «naturalen» kontrako gisa, hauetatik lortutako produktuak (sinpleak edo konplexuak) dira: A) tratamendu kimiko bidezko produktu naturalak, b) tratamendu bidezko material begetala edo animalien zuntzak, c) sintesi kimikoa, partziala zein ez [A. Dehovelaren arabeko definizioa]).

Gauzak horrela ulertzeko moduarekin bat, aisialdirako baratz ekologikoen erabileran nekazaritza ekologikoaren arau hauek kontuan izango dira:

1) Ongarriei dagokienez:

Debekatuta daude:



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

a) Sintesiko ongarri organiko guztiak (Espainiar estatuan saltzen diren guztiak) eta produktu kutsatuekin egindako konpostak (lastoak, simaurrak, pestizida eta herbizidekin tratatutako belar eta ongarri organikoak).

b) Prozedura kimikoen bitartez lortutako ongarri mineral guztiak (nitrogenatuak, fostatatuak, potasikoak, magnesikoak, kare bizia, etab).

Onartuta daude:

a) Zizareen humusetik eratorritako ongarriak, konpostatutako simaurrak (konposta hartidura aerobikoaren prozesutzat ulertuta), ongarri berdeak eta ongi deskonposatutako uzten hondarrak, baita kutsatu gabeko hondakinekin egindako konpostak ere.

b) Jatorri naturaleko ongarri mineralak (txikitutako fosfato naturalak, silizeen hautsak, kareharri txikituak, dolomitak, etab.).

2) Tratamendu fitosanitarioei dagokionez:

Debekatuta dago:

a) Intsektizida, fungizida eta akarizida eta sintesi kimikotik eratorritako beste produktu guztien erabilera.

Onartuta daude:

a) Substantzia natural mineral, begetal edo animalienetan oinarrituta sortutako fungizidak (Bordeleko salda, Borgoñako salda, etab.).

b) Landareekin egindako produktuak (beratzeak, infusioak, egosketak, gernuak).

3) «Belar txarrei» dagokienez:



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

Debekatuta dago edozein sintesiko herbizida kimiko erabiltzea.

Onartuta dago belar lehiakorren kontrolerako metodo biologikoak erabiltzea (bigungarria, eskuzko jorraia edo erdi eskuzkoa, zapalda sakoneko laborantza).

4) Hazi eta landareei dagokienez:

Debekatuta dago:

a) Laborantza kimikotik datozen birlandatzeko barazkien erabilera.

b) Prestatzeko edo kontserbatzeko sintesiko produktu kimikoekin tratatutako sustrai, erraboil eta tuberkuluen erabilera.

c) Bildu ondoren produktu kimiko sintetikoekin tratatutako hazien erabilera.

d) Edozein mota eta klasetako organismoak, genetikoki moldatuak (transgenikoak).

Onartuta dago:

a) Nekazaritza biologikotik eratorritako barazki, sustrai, erraboil, tuberkulu eta hazien erabilera.

b) Produktu horien erabilera, ohiko laborantzetatik etorri arren, produktu kimiko sintetikoekin landu ez baldin badituzte.

Garatu beharreko laborantza ekologikoak ekoizpen eta kontsumo jasangarrien praktiken eredu izan behar du.

HAMAIRUGARRENA.- Ureztatze baldintzak



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

1. Baratzeen erabileraren titularrek Ikaztegietakoko Baratzak Parkean kokatu diren instalazioen barruan eskura dituzten ureztatzeko baliabideak erabili behar dituzte; baliabideok ureztatzaileak erabiliz asketako urekin ureztatzean datza.
2. Ezingo dira erabili daudenak ez diren beste elementu batzuk, eta soilik ureztatu ahal izango dira lurrak hodian bidez eta zuzenean zorura, ildora edo tantaka egin beharko da; debekatuta dago beraz ihinztagailuak edo inguruko baratzak inbadi ditzaketen beste baliabide batzuk erabiltzea.
3. Edozein kasutan, saihestu egingo da ur-sarrera zabalik uztea, ureztatzeko ura xahutzea edo gaizki erabiltzea, edo uraren kontsumo anormala eragiten duten ureztatze metodoak erabiltzea; aurkako jarrerak kontratua galtzea ekar lezake.
4. Debekatuta dago ura beste nonbaitetik ekartzea, horretarako prestatu ez den leku batetik, baratzak ureztatzeko.

HAMALAU GARRENA.- Hondakinen trataera.

1. Baratzeen erabiltzaileen erantzukizuna izango da lursaila garbi mantentzea eta horretarako hondakin organikoak konpost gunean utzi beharko dituzte bere desegiterako.
2. Gainontzeko hondakinak udalak horretarako jarritako edukinontzian edo xedaturiko tokian utziko dira.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

HAMABOSTGARRENA.- Lurreko fruituen xedea

1. Erabiltzaileek lurraren laborantzatik eskuratzen diren fruituak biltzeko eskubidea izango dute, baina soilik erabili ahal izango dituzte euren kontsumorako edo euren familiarenerako.

2. Debekatuta dago erabiltzaileek aisialdirako baratz ekologikoetatik jasotzen dituzten baratzeko produktuak saltzea, baita horien trafiko juridiko komertziala eragingo lukeen eragiketa komertzialik ere.

HAMASEIGARRENA.- Ez betetzea.

Aurreko klausulen ez betetzeak automatikoki ekarriko du berrakura kontratuak haustea.

HAMAZAZPIGARRENA.- Formalizazioa

Berrakura kontratuen formalizazioa gauzatuko da kontratu pribatua sinatzen den momentuan. Kontratua sinatu da esleipena jakinarazi eta 15 lan eguneko epean. Esleipendunak Ikaztegieta Udalak zehazten dion ordu eta egunean Udaletxetik pasa beharko du kontratu pribatua sinatzera. Kontratuan ezingo dira jaso esleipenean jasota ez datozen betebeharrak.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2017ko martxoaren 8an udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.

Ikaztegieta, 2017ko martxoaren 8a

Ikaztegietan 2017ko martxoaren 8an